

ERAKUNDEAREN DATUAK

1. Erakundearen izena:	HORBEL
2. Sektorea:	Zerbitzuak
3. Langile kopurua:	64
4. Webgunea:	https://www.horbel.eus/
5. Erakundearen jardueraren deskribapena: (produktu eta zerbitzu nagusiak, merkatua, bezero motak...):	<p>Gizarte-ekimeneko kooperatiba gara. Esku-hartze sozialaren esparruan aritzen gara, haur, nerabe eta gazteak ardatz hartuta, eta laguntza teknikoko, esku hartzeko eta aholkularitzako kalitatezko zerbitzuak ematen dizkiegu erakunde publiko nahiz pribatuei.</p> <p>Gure lan-ildoak askotarikoak dira eta eskarmentu handia dugu, besteak beste, gazteria-politika eta –programetan, haur eta nerabeen babesean, komunikazio hezitzailean, hezkuntza ez formalean, aisiaren eta astialdiaren pedagogian, psikologian, gizarte-hezkuntzan, etab..</p> <p>Xedea: Haurren, nerabeen eta gazteen ongizatea da gure helburu nagusia; orain nahiz etorkizunean kalitatezko bizitza duina izan dezaten sustatzea, haiei babesa eta aukera-berdintasuna bermatzea.</p>

Harremanetarako datuak

Solaskidearen izen-abizenak:	Idoia Murua
Helbide elektronikoa:	imurua@horbel.eus
Telefonoa:	943 472580

PRAKTIKA ONAREN AZALPEN LABURRA

1. Praktika onaren titulua:	Helbide elektronikoak eta erantzun-mezuak
2. Praktika onaren azalpena: Zer da? Zertan datza? Nondik dator? Zeintzuk dira onurak, lortu diren emaitzak?	<p>Erakundeak zerbitzu berriak atxikitzean, horietan langileen sinadurak gaztelaniaz zeudela konturatu ginen. Gainera, lehendik euskaraz zeudenen artean desberdintasunak eta akatsak zeuden.</p> <p>Horregatik, sinadura guztiak bateratu eta, lanpostuaren arabera, euskara hutsean edo ele bitan jartzeko jarraibideak jaso ziren gida batean. Horrekin batera, erantzun-mezu automatikoak euskaraz edo ele bietan nola jarri ere jaso zen gidan.</p>

PRAKTIKA ONAREN INGURUKO DOKUMENTAZIOA, IRUDIAK, GRAFIKAK...

Zerrenda bat osatu da erakundeko lanpostu guztien euskarazko sinadurarekin eta erabiltzeko jarraibideak eman dira (gorriz dagoena kasu bakoitzean aldatzekoa da). Adibidez:

ÖRDIZIA¶

¶

Izen-abizena¶

Telefonoa¶

Helbide elektronikoa (adibidez, koordinatzailea ordizia@horbel.eus)¶

Ordiziako Gaztelekuko koordinatzailea¶

Horbel, Ordiziako Udalak kontratatutako entitatea¶

¶

Izen-abizena¶

Telefonoa¶

Helbide elektronikoa (adibidez, hezitzailea ordizia@horbel.eus)¶

Ordiziako Gaztelekuko koordinatzailea¶

Horbel, Ordiziako Udalak kontratatutako entitatea¶

Gauza bera egin da erantzun-mezu automatikoekin (horiz dagoena kasu bakoitzean aldatzekoa da). Adibidez:

"

BULEGOZ KANPOKO ERANTZUN-MEZUAK¶

¶

OPORRAK¶

¶

Gaia / Asunto: Ez nago bulegoan ¶

Kaixo:¶

¶

Une honetan oporretan nago, baina **urtarrilaren 3an, astelehena**, berriz ere bulegoan izango naiz. ¶

¶

Larrialdiren bat izanez gero, **SATen/EZIAren** bulegoko **(telefono-zenbakia)** telefonora deitu dezakezu; egoera zein den azaldu, eta lankide batek **(izena)** erantzungo dizu. Eskerrik asko. ¶

¶

Agur bero bat, ¶

¶

KUDEAKETA AURRERATUA
EUSKALIT
GESTIÓN AVANZADA



KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLITICA LINGÜISTICA